

# **CONCILIER L'AGROPASTORALISME LA FORET ET LES ACTIVITES DE LOISIRS DANS LA MONTAGNE BASQUE**



Rapport adopté par le Conseil de direction du  
15 décembre 2003

**VERSION RESUMEE - BILINGUE**

## CONCILIER L'AGROPASTORALISME LA FORET ET LES ACTIVITES DE LOISIRS DANS LA MONTAGNE BASQUE

Quelques événements, dont certains dramatiques, ont porté un éclairage nouveau sur le monde de la montagne basque. Comme les autres territoires, cette montagne a sensiblement évolué au cours des dernières années avec l'émergence de nouvelles pratiques, de nouvelles réglementations et de nouveaux usages. La montagne devient un espace à enjeu fort et la cohabitation en bonne intelligence des différentes activités apparaît comme la question centrale.


A la demande de l'association Hemen, le Conseil de développement a ouvert ce chantier, et, pendant près d'un an, une quarantaine de personnes de sensibilités et d'horizons différents se sont retrouvées régulièrement pour examiner cette question et formuler des propositions.

### I- ETAT DES LIEUX

#### 1 – Les caractéristiques générales de la montagne basque

La montagne basque est un milieu vaste, riche, varié et multiforme ne répondant pas à une seule et unique définition. Elle est à la fois :

- Un vaste territoire de 75 200 ha équipé et géré en grande partie par les Commissions syndicales de vallée,
- Un espace ouvert au public, très facilement accessible, où cohabitent plusieurs activités sans pour autant que les règles d'usage de cet espace soient bien définies,
- Un territoire composé de sous-ensembles pastoraux différents dont l'exploitation s'avère essentielle pour beaucoup d'éleveurs,
- Un espace traditionnellement entretenu par l'activité pastorale et le brûlis pastoral,
- Un territoire témoin d'une riche et longue histoire.



## 2 - Les activités de la montagne basque

### 2.1. L'agropastoralisme : une activité de base à consolider

De nombreuses évolutions de l'agropastoralisme tendent à reposer les enjeux de cette activité :

- Une certaine dynamique agropastorale qui se distingue du reste du massif pyrénéen,
- Une pyramide des âges des chefs d'exploitation moins critique que sur d'autres territoires, nourrie par l'installation de jeunes exploitants,
- Des exploitations essentiellement tournées vers l'élevage ovin et bovin,
- Une pluriactivité concernant près d'un exploitant sur trois,
- Une évolution forte du métier de berger, devenant de plus en plus un technicien d'alpage pratiquant un métier moderne, technicisé, mais s'appuyant sur une tradition forte, des connaissances et des savoir-faire,
- Un espace pastoral soumis à une forte pression ou mal utilisé.

#### L'activité agropastorale sur Garazi-Baigorri et Xuberoa

Eleveurs transhumants : 1100  
Bergers sans terre : 50  
Producteurs de fromage en estive : 35  
Ovins : 168 000  
Bovins : 9000  
Equins : 1800

### 2.2. La forêt dans la montagne basque : une place et un rôle à redéfinir

La forêt a une forte image de par son impact sur le paysage et son rôle dans la vie rurale dans la montagne basque.

- Une présence importante de la forêt dans la montagne basque,
- Une forêt morcelée appartenant à de très nombreux propriétaires privés,
- Une importante source de revenus pour les collectivités et les propriétaires privés,
- Des rapports très étroits entre pastoralisme et forêt : maintenir son état boisé, permettre le libre parcours en son sein, fournir de la litière pour les animaux,
- Un rôle essentiel de la forêt sur l'eau : les fonctions de l'arbre trop souvent oubliées et la disparition d'arbres accentuent fortement les phénomènes de

#### La forêt dans la montagne basque

Superficie totale : 57 744 ha  
Propriétaires privés : 36 830 ha  
Relevant du régime forestier : 20 914 ha  
Une forêt morcelée : 84% des propriétaires ont des surfaces de moins de 4 ha

### 2.3. Les activités de loisirs : un domaine en plein développement

Les activités de pleine nature (APN), de loisirs, de tourisme rassemblent des pratiques extrêmement diverses dans des milieux très différents, avec une envie commune : se retrouver plongé dans un environnement sauvage et goûter à des sensations, avec un minimum de risque. De grandes tendances se dégagent dans l'usage de ces pratiques :

- La randonnée (pédestre, équestre, VTT) très accessible aux touristes d'un jour, est largement développée sur la montagne basque
- Les activités d'eaux vives, souvent encadrées par des professionnels, sont en pleine progression,
- Les sports de vol sont limités et spécialisés sur des sites précis,
- Les activités motorisées évoluent dans une certaine anarchie,
- La chasse et la pêche, activités traditionnelles, encore très présentes, tendent à diminuer.

### **3 – Les interactions entre les activités de la montagne**

Au fur et à mesure que la montagne est devenue multifonctionnelle, les interactions entre les activités productives traditionnelles et les activités de loisirs et de plein air ou entre activités de loisirs se sont multipliées.

#### **3.1- Un développement des conflits d'usage :**

- **concurrence entre deux ou plusieurs activités sur un même espace** : c'est la situation qu'on rencontre le plus souvent quand une nouvelle activité se développe sur un territoire déjà utilisé à d'autres fins. Plusieurs conflits de ce type sont apparus ces dernières années sur le massif du Baigura, sur la rivière Errikaitze, le massif de la Madeleine,
- **utilisation d'espaces privés sans l'accord des propriétaires** : la montagne étant en grande partie non clôturée, la tentation est grande de passer dans des lieux sans toujours apprécier les désagréments que cela peut poser. De nombreux exemples ont été relatés où des passants n'hésitent pas à rentrer dans des cayolar en dérangeant l'intimité ou l'activité des bergers sans respect du mode de vie. Ce type de conflit peut également être la fait de ramasseurs de champignons utilisant des espaces privés pour leur cueillette personnelle,
- **problèmes posés par les chiens** : ces cas proviennent soit de chiens errants qui peuvent créer des dégâts dans les troupeaux de brebis, soit de chiens non tenus en laisse par leur maître qui dispersent les troupeaux,
- **développement des activités motorisés (motocross, 4x4,...)** : ces nouvelles activités qui ont tendance à se développer rapidement ne font pas toujours l'objet d'accord avec les propriétaires et collectivités concernées. Elles créent auprès des autres utilisateurs, une forte gêne sonore et visuelle et dans certains cas perturbent les parcours des troupeaux en montagne,
- **différends entre éleveurs** : dans certaines zones de transhumance connaissant des chargements importants, les limites des parcours ne sont pas toujours respectées provoquant des conflits de voisinage qui dans certains cas nécessitent la médiation des responsables des Commissions syndicales.

#### **3.2- La quasi-absence de règles d'usage de ces espaces**

La quasi-absence de règles d'usage de ces espaces rend difficile la résolution de ces conflits. Peu d'organismes ou de structures sont adaptés pour intervenir dans la gestion et la régulation des conflits d'usage. Les Commissions Syndicales assurent ce rôle pour les activités traditionnelles d'agrosylvopastoralisme. Les Commissions Départementales des espaces, sites et itinéraires de sport-nature instituées par les Conseils Généraux peuvent revêtir cette fonction. Toutefois la création récente de ces commissions implique que leur impact reste pour le moment limité.

Le développement des nouvelles activités se fait donc sans définition préalable des règles d'utilisation de ces espaces. Les responsables locaux sont dans le désarroi dès qu'il s'agit de traiter les problèmes inhérents aux conflits d'usage. A chaque situation conflictuelle, on a tendance à répondre, dans un premier temps, par un interdit et quand cet interdit n'est pas applicable, on tente une négociation pour construire une code de bonnes pratiques en concertation avec les différents utilisateurs.

## II - PRECONISATIONS

---

Le territoire de la montagne basque est en mutation : évolution des activités traditionnelles, apparition de nouveaux usages avec une montagne « consommée » comme un espace de loisirs, émergence de nouveaux acteurs, pression sociale face à une « environnementalisation » progressive de la société...

Ces mutations ou ces évolutions génèrent de nouvelles questions auxquelles il semble nécessaire d'amener des réponses.

En prenant appui sur les constats et les enjeux développés précédemment, le Conseil de développement formule des préconisations autour de trois axes.

### **1<sup>er</sup> axe : La cohabitation et le développement des activités en bonne intelligence dans la montagne basque**

#### **1- Se donner les moyens pour explorer et garantir l'évolution et la pérennité des activités pastorales et forestières dans la montagne basque**

Si le souhait de voir l'agrosylvopastoralisme assurer une fonction de clé de voûte de l'aménagement et du développement de la montagne dans le futur est clairement affirmé par l'ensemble des acteurs, encore faut-il vérifier que les conditions sont réunies pour aller dans ce sens. C'est pourquoi, il paraît opportun de :

- ↳ *Disposer d'une base prospective sur les évolutions des pratiques agropastorales d'ici 2015* : qui ira en montagne dans les prochaines années ? Dans quels secteurs ? Comment risquent d'évoluer les cheptels transhumants ? Comment évoluera la transformation fromagère en montagne ? Les fonctions d'accueil en montagne pourront-elles générer de nouvelles ressources aux berger ? A quelles conditions ? Autant de questions qui mériteraient une analyse prospective pour donner aux différents acteurs des éléments d'analyse précis. Le Groupement d'Intérêt Scientifique mis en place récemment par les acteurs de la filière « ovin lait » devrait pouvoir apporter son concours dans ce domaine,
- ↳ *Prendre appui sur les recommandations faites par l'INRA pour assurer la viabilité des exploitations agropastorales du Pays Basque* : dans le cadre du programme Leader II, les travaux conduits par l'INRA en 1998 ont permis, après une phase de concertation approfondie avec les acteurs agricoles, de formuler des propositions concrètes pour pérenniser l'agropastoralisme en Pays Basque. Il serait que le comité de pilotage de ce programme établisse un bilan des avancées dans ce domaine et assure une animation partenariale pour que ces différentes pistes soient réexaminées,
- ↳ *Codifier les usages locaux* : la viabilité des exploitations agricoles passe également par une reconnaissance des pratiques locales de plus en plus prises en compte dans l'attribution des aides,

- ↳ **Intégrer la forêt et son rôle, dans les démarches de développement territorial :** il manque à ce jour en Pays Basque, et plus particulièrement sur la montagne basque, une véritable réflexion sur la place et le rôle de la forêt. La charte forestière de territoire, avec la démarche partenariale forte et plurielle qu'elle implique, peut s'avérer un outil intéressant et innovant pour les territoires où forêt, pastoralisme, préservation de la ressource en eau et de la diversité biologique, activités de loisirs... cohabitent.

## 2- Développer les activités de loisirs en respectant les activités agrosylvopastorales

Le développement des nouvelles activités de loisirs en zone de montagne est perçu localement plus comme une source de contraintes qu'une opportunité nouvelle participant au développement économique. Pour que ce développement soit maîtrisé, le Conseil de développement propose les pistes suivantes.

- ↳ **Valoriser les atouts de la montagne pour développer et diversifier les activités économiques :** l'impact des activités de loisirs sur l'économie locale, en terme de création de richesse, d'emplois, peut être significatif si les différents acteurs s'entendent pour définir une stratégie concertée dans ce domaine. Les projets collectifs de développement (PCD) en cours de préparation dans ces territoires peuvent être l'occasion à saisir pour aller dans ce sens.
- ↳ **Déterminer à l'échelle des espaces montagnards les zones destinées aux activités de loisirs :** les activités de loisirs doivent s'harmoniser avec l'ensemble des activités traditionnelles présentes sur la montagne basque et s'adapter aux pratiques des activités traditionnelles et non le contraire. Sans restreindre l'accès, de façon formelle à certains sites, à des activités de type 4\*4 ou moto-cross, un diagnostic géographique sur la localisation de ce type d'activité est souhaitable. Ce travail pourrait être le fruit d'un travail de concertation dans chaque vallée entre les acteurs concernés sous l'égide des commissions syndicales et des collectivités locales.
- ↳ **Elaborer un code d'usage de la montagne basque :** comme il existe un code de la route, la constitution d'un code d'usage de la montagne basque avec des règles précises d'accès et de circulation, permettrait de restreindre certaines mauvaises pratiques. Il est souhaitable d'anticiper les situations conflictuelles en élaborant à l'échelle des commissions syndicales et de façon concertée, des règles du jeu. Cette réflexion devrait aller jusqu'à la définition des pouvoirs de police attribués aux Commissions syndicales pour appliquer ces nouvelles règles dans les territoires qu'elles gèrent, compétences et moyens financiers qu'elles ne possèdent pas actuellement.
- ↳ **Mettre en place les outils d'information et de sensibilisation des différents utilisateurs de la montagne :** la montagne basque est « consommée » par des citoyens qui n'ont pas toujours les connaissances et les références nécessaires à une bonne compréhension du milieu qu'ils pratiquent. C'est pourquoi, il apparaît souhaitable de renforcer les actions pédagogiques en direction des publics scolaires et d'inciter l'ensemble des offices de tourisme du Pays Basque à collaborer pour promouvoir et communiquer sur les bonnes pratiques en montagne (signalétique, règles d'usage...)

### **3- Créer dans chaque vallée, un espace de concertation entre acteurs et utilisateurs de la montagne**

La multiplication de conflits d'usage pose la question du traitement de ces différends voire celle de l'anticipation des situations conflictuelles. Aux vues des expériences, la solution aux problèmes nés de conflits d'usage entre acteurs repose rarement sur l'exclusion ou l'interdiction d'accès à ces pratiques, mais passe dans la plupart des cas par la mise en place de solutions concertées entre les acteurs. C'est pourquoi, il est suggéré de mettre en place des instances de concertation locale permettant aux différents utilisateurs de se rencontrer et de traiter les problèmes. A cet effet, le Conseil de développement propose de :

- ↳ ***Intégrer cette fonction de concertation au sein des Commissions syndicales :*** les Commissions syndicales sont bien identifiées comme des lieux de médiation pour tout problème relevant des questions agropastorales ou forestières. Constituant à ce jour l'institution de référence, il serait souhaitable qu'elles assurent, en complément, cette fonction de concertation entre les différents utilisateurs de la montagne, et lever ainsi, progressivement, les difficultés liées à la méconnaissance des acteurs entre eux.
- ↳ ***Organiser des forums locaux sur les enjeux de la montagne :*** la mise en place de ces instances de concertation pourrait être précédée et nourrie de débats sur l'avenir de la montagne dans le cadre de forums locaux permettant à l'ensemble des acteurs locaux d'intervenir dans la réflexion et d'être sensibilisé aux enjeux posés.

### **2<sup>ième</sup> Axe : Un entretien sécurisé de la montagne et une bonne gestion des espaces**

#### **4- Diversifier les outils et les moyens pour sécuriser et garantir un bon entretien des zones pastorales**

Si le meilleur outil pour entretenir les espaces pastoraux est bien le pâturage, il trouve ses limites dans les territoires intermédiaires où les troupeaux n'y passent plus ou trop peu. Le recours au feu est la technique la plus ancienne et la plus couramment utilisée. Elle présente cependant des risques dès l'instant où elle n'est pas bien maîtrisée. C'est pourquoi, il convient de :

- ↳ ***Diversifier les techniques d'entretien:*** des techniques complémentaires au brûlis méritent d'être examinées : gyrobroyage, fauche sur des zones non-mécanisables mais accessibles, boisement de certaines zones non-accessibles, réintroduction de races animales adaptées à ces zones difficiles d'accès. La communauté de communes de Soule a intégré dans son PCD une opération visant à expérimenter des techniques d'entretien autres que le brûlis
- ↳ ***Conforter les procédures de gestion du brûlis pastoral :*** ces procédures sont très encadrées par la législation. Il est souhaitable de les renforcer par des actions locales pour mieux maîtriser ces techniques et garantir la sécurité des randonneurs ou tout autre utilisateur de la montagne,
- ↳ ***Favoriser la mise en place de structures de gestion collective des zones intermédiaires :*** la gestion des zones intermédiaires pose un problème important

puisqu'elles sont en majorité laissées sans entretien. Le travail de l'INRA de 1998 permet de les distinguer et de définir l'étendue de ce que recouvrent la complexité et la diversité de ces zones. Un moyen d'y répondre est d'inciter les propriétaires fonciers, qu'ils soient publics ou privés, à se regrouper pour gérer collectivement ces espaces. Il existe pour cela, différents types de structure à disposition des acteurs: les Associations Foncières Pastorales, les Associations Syndicales Autorisées, les Opérations Groupées d'Aménagement Foncier...

## 5- Protéger les milieux naturels sensibles

La protection de l'environnement et des lois qui la traduisent est en pleine évolution. La prise en compte des enjeux environnementaux sera de plus en plus au cœur des politiques d'aménagement et de développement des territoires. Dans ce domaine, il apparaît opportun de mettre l'accent sur trois mesures :

- ↳ ***Etudier les modalités pour une bonne gestion des massifs sensibles (Iparla, Artzamendi...)***: ces massifs ont été identifiés, dans l'étude de l'INRA, comme « des versants en grande déprise », en partie délaissés par l'activité agricole. L'avenir de leur aménagement, de leur gestion, du maintien du patrimoine naturel et pastoral n'est pas garanti. Cette zone, proche du littoral, est très facilement accessible et nombreux sont ceux qui souhaiteraient « protéger » cette zone pour préserver les atouts exceptionnels dont elle dispose afin d'asseoir un développement durable prenant appui sur la valorisation et la sauvegarde du patrimoine naturel et sur la bonne cohabitation des activités. Il est souhaitable que d'un commun accord, les différents acteurs concernés (communes, commission syndicale, éleveurs, associations...) arrêtent ensemble un schéma de bonne gestion de ces zones sensibles et définissent les conditions de mise en œuvre,
- ↳ ***Intégrer la protection de la ressource en eau dans les pratiques d'utilisation de la montagne***: la préservation de la ressource en eau est un enjeu global allant de la protection des rivières et des sources en montagne jusqu'au traitement des eaux usées en aval. Des phénomènes de pollution ont été observés dans les sources de montagne liées principalement aux déjections animales. La protection de cette ressource invite à considérer autrement les pratiques agropastorales autour des zones de captage
- ↳ ***Prendre appui sur les mesures environnementales existantes pour mettre en place des pratiques de développement durable***: sans préjuger des décisions qui seront prises dans le classement définitif des sites Natura 2000, il apparaît opportun de prendre appui sur les documents d'objectifs à élaborer, pour adapter les mesures et les moyens aux souhaits des acteurs locaux

### **3<sup>ième</sup> axe : Un projet d'avenir pour la montagne basque**

#### **6- Elaborer à l'échelle de l'ensemble de la montagne basque, une charte de développement durable.**

Les activités présentes sur la montagne basque se développent sans un réel projet d'ensemble et sans une vision globale de ce que devrait ou pourrait être l'avenir de ce territoire. Il apparaît nécessaire de définir une véritable charte de développement pour la montagne. A cet effet, le Conseil de développement formule trois propositions :

- ↳ ***Exprimer autour d'un projet global, les objectifs communs et un programme d'actions*** : ce projet transversal à l'ensemble des thématiques que nous venons d'aborder, pourrait se traduire sous la forme d'une charte qui garantirait la pérennisation et la conciliation des activités sur la montagne basque et un programme d'actions pluriannuel pouvant faire l'objet d'une contractualisation avec l'Etat, la Région et le Département. Ce massif ne s'arrêtant pas au seul versant nord, la participation des vallées et des acteurs navarrais dans cette démarche est souhaitable. La réflexion en serait enrichie et certains aspects de la montagne pourraient être ainsi appréhendés de manière globale. Cette approche transfrontalière pourrait peut-être autoriser plus facilement la mobilisation des financements européens après 2006.
- ↳ ***Mettre en place un comité de pilotage pour l'élaboration de cette charte*** : pour que le projet de développement durable soit partagé par l'ensemble des acteurs concernés, il est souhaitable que ce Comité de pilotage intègre en son sein outre les Commissions syndicales et les communes gestionnaires de ces territoires, les représentants des éleveurs, des bergers, des forestiers, des chasseurs, des pêcheurs, des activités de loisirs, etc... ainsi que les collectivités territoriales et établissements publics concernés par la montagne et son devenir.
- ↳ ***S'appuyer sur les Commissions syndicales et les communes pour assurer le portage de cette charte et de son programme opérationnel*** : pour l'essentiel de la montagne basque allant de la Soule à Baigorri, les commissions syndicales sont les principaux organes de gestion et d'aménagement de ces territoires. Leur capacité à agir et leur légitimité en font les interlocuteurs incontournables pour porter un tel projet en partenariat avec les autres propriétaires ou associations de propriétaires, les utilisateurs et les collectivités territoriales.

# LABORANTZA-ABELTZAINTZA, OIHANA ETA AISIALDIKO AKTIBITATEEKIN ELGAR BIZIARAZI EUSKAL MENDIAN

Zonbait gertakarik, hauetariko batzuk oso larriak, argi berri bat ekarri diote euskal mendiko munduari. Beste lurralteek bezala, mendi honek bilakaera bat ezagutu du azken urte hauetan praktika, araudi eta usaia berri batzuk agertzearekin betan. Mendia, erronka azkarreko gunea bilakatzen ari da eta denen arteko elgar bizitza zentzuzkoa agertzen da funtsezko galdera bezala.


Hemen elkartea eskaturik, garapen Kontseiluak ideki du lan alor hau, eta, urte batez kasik, sensibilitate eta jatorri ezberdineko berrogoi bat pertsona erregularki bildu dira galdera honen aztertzeko eta proposamenak azaltzeko.

## I- EGOERAREN AZTERKETA

### 1 – Euskal mendiaren ezaugarri nagusiak

Euskal mendi eremu zabal, aberats, mota eta forma askotakoa da, eta ez dio bakarrik definizio soil bat erantzuten. Aldi berean, ondoko guzi hau da :

- ↗ 75 200 ha-ko lurralte zabal bat, araneko batzorde sindikalek parte handiz hornitu eta kudeaturik,
- ↗ Publikoari idekia den eremu bat, hurbil errexa, eta bertan aktibitate anitz egin daiteke, eremu honen erabiltze araudiak ez badira ongi zehaztuak ere.
- ↗ Artzaintzarako azpi multzo ezberdinez osaturiko lurralte, honen ustiatzea hainbat abelzainentzat ezinbestekoa gertatzen delarik.
- ↗ Ohiduraz, abeltzaintzaren aktibitatea eta larre-erreketak zaintzen duen eremu bat,
- ↗ Historio luze eta aberats baten lekukoa den lurralte bat.



## 2 – Euskal mendiko aktibitateak

### 2.1. Laborantxa-abeltzaintza : azkartu beharreko oinarrizko aktibitatea

laborantxa-abeltzaintzaren hainbat bilakaerek, aktibitate honen erronkak ber pausatzera bultzatzen dute :

- Pirionetako gaineratiko lurrardeetatik desberdintzen den laborantxa-abeltzaintza dinamika bat,
- Etxalde buruen adin tasa gazteagoa beste lurralte batzuetan baino, gazteen plantatzeari esker,
- Ardi edo behi hazkuntzan gehienik ari diren etxaldeak,
- Hiru ustiatzaileetatik bat hunkitzen duen pluriaktibitatea,
- Artzainaren lanaren bilakaera argi bat, hau gero ta gehiago alpaitako teknikaria bilakatuz, ofizio moderno, teknikoagoa eginez, baina jakitate eta ohidura azkar batean oinarritua,
- Presio azkarra jasaiten edo gaizki erabilia den abeltzaintzarako eremua.

#### Laborantxa-abeltzaintza akibitatea Garazi-Baigorri eta Xuberoan

Abeltzain larrealdatzaileak : 1100  
Lurrik gabeko artzainak: 50  
Udako gasna ekoizleak : 35  
Ardiak : 168 000  
Behiak : 9000  
Zaldiak : 1800

### 2.2. Oihana euskal mendian : berriz zehazteko toki eta betekizuna

Oihanak irudi azkarra du ingurumenean duen inpaktoaz eta euskal mendiko baserri bizian duen betekizunaren gatik.

- Oihanaren presentzi garrantzitsu bat euskal mendian,
- Jabe pribatu anitzena den oihan zatikatu bat,
- Diru iturri garrantzitsua kolektibitate eta jabe pribatuentzat,
- Harreman hertsia abeltzaintza eta oihanaren artean : egoera zuhamutsua atxiki, utzi pasaibidea bere baitan, abere azpia hornitu,
- Oihanaren eragin ezinbestekoa urarako : zuhaitzaren funtzieak gehienetan ahanzten dira eta haien desagertzeak azkartzen dituzte kutsadura fenomenoak..

#### Oihana euskal mendian

Hedadura orokorra : 57 744 ha  
Jabe pribatuak : 36 830 ha  
Oihanaren erregimenaren ardurapean : 20 914 ha  
Oihan zatikatua: jabeen % 84ak 4 ha baino gutiagoko hedadurak dituzte

### 2.3. Aisaldi aktibitateak : guziz garatzen ari den arlo bat

Natura beteko aktibitateek (NBA), aisaldikoek eta turismokoek giro arrunt ezberdinetan biltzen dituzte praktika arrunt ezberdinak baina gogo berdinarekin : ingurumen basa batean murgiltzea eta sentsazioak dastatzea arrisku gutirekin. Tendentzi zabalak ateratzen dira praktika hauen erabiltzetik :

- Ibilaldiak (oinez, zaldiz, Mendiko Txirrindulaz) egun baterako etorri turistentzat hurbil errexak, biziki garatua da euskal mendian
- Ur biziko aktibitateak, usu profesional batzuk zainduak, goraka doaz,
- Hegaleko kirolak mugatuak dira eta gune zehatz batzuetan berezituak,
- Motorrezko aktibitateat kontrola gehiegirik gabe emendatzen dira,
- Arrantza eta ihizia, ohidurazko aktibitateak, oraindik biziak, gutitzen ari dira.

### **3 – Mendiko aktibitateen arteko interrakzioak**

Mendiaren funtzionalitatek ugaritzen diren heinean, usaiako aktibitate emankorren eta kanko eta aisiaidiko aktibitate edo aisiaidiko aktibitateen arteko interrakzioak biderkatu dira.

#### **3.1- Usaiako gatazken garapena :**

- **Bi edo hainbat aktibitateen arteko konkurentzia eremu berdinean :** hau da gehienetan aurkitzen dugun egoera aktibitate berri bat garatzen denean beste helburu batentzat erabilia den lurralde batean. Horrelako zonbait gatazka agertu dira azken urte hauetan Baigura mendian, Errikaitze errekan, Madalena mendian,
- **Eremu pribatu en erabiltzea jabeen baimenik :** hesirik ez izanki mendiko parte handienetan, errex da toki batzuk zeharkatzea ikusi gabe zer desmasia eragin daitekeen. Kaiolarretan sartzen diren jendeen adibide ugari kontatu izan dira, artzainen intimitatea edo aktibitatea trabatuz, haien bizimodua batere errespetatu gabe. Gatazka mota honen oinarrian gune pribatuetan ibiltzen diren onddo biltzaileak izan daitezke ere,
- **Txakurrek eragindako arazoak :** kasu honetan, desmasiak sor daitezke artaldeetan, edo lokarririk gabeko txakurrengandik edo txakur galduengandik,
- **Motorrezko aktibitateen garapena (motokross, 4x4,...) :** molde lasterrean garatzen diren aktibitate berri hauek ez dira beti egin jabe eta kolektibitateen baimenarekin. Arrabotsa handia eta begietarako traba sortzen dute beste ustiatzaileen artean eta batzuetan artaldeen ibilbidea trabatzen mendian,
- **Abeltzainen arteko kalapitak :** aldaketa garrantzitsuak ezagutzen dituzten larre aldatze zonbait eremutan, ibilbideen mugak ez dira beti errespetatzen, eta horrek auzoen arteko gatazkak sortzen ditu, eta batzutan sindikal batzordeen arduradunen mediazioa eskatzen dutenak.

#### **3.2- Eremu hauen erabiltze araudi eskasa**

Eremu hauen erabiltze araudi eskasak zaitzen ditu gatazkei aurkitu beharreko aterabideak. Erakunde edo egitura guti egokituak dira erabiltze gatazken kudeantza eta erregulazioan eragiteko. Sindikal Batzordeek betetzen dute eginkizun hau laborantxa-oihangintza-abeltzaintzako usaiako aktibitateetarako. Kontseilu Orokorek jarritako kirol-natura eremu, gune eta ibilbideetako Departamenduko Batzordeek betetzen ahal dute funtziro hau. Halere, batzorde hauen sorkuntza berriak implikatzen du haien eragina mugatua izatea.

Aktibitateen garapena, lurralde hauen aitzineko erabiltze araudirik gabe egiten da. Tokiko arduradunak galduak dira erabiltze gatazkek sorturiko arazoak tratatzeko unean. Egoera konfliktilo bat gertatzen den aldi oro, hastapen batean, debeku batekin erantzuteko usaia bada, eta debeku hau ezin delarik aplikatu, negoziaketa bat abiatzen da erabiltzaile ezberdinak, praktika onen kodigo bat eraikitzeko.

## II – Aholkuak

Euskal mendiaren lurraldea mugitzen ari da : ohidurazko aktibitateen bilakaera, erabilmolde berrien agertzea aisialdi eremu gisan « kontsumitua » den mendia, eragile berriak, gizartearen « ingurumentze » jarraiki bati aurre egiten dion presio sozialarekin...

Mutazio edo bilakaera hauek galdera berriak sortzen dituzte, eta iduri luke erantzunak ekarri behar zaizkiela.

Aitzinago garatutako ohar eta erronketetan oinarrituz, garapen Kontseiluak aholku batzuk azaltzen ditu, hiru ardatzen inguruan.

### 1. ardatza : Elgar bizitza eta aktibitateen garapena giro onean euskal mendian

#### 1- Baliabideak aurkitu euskal mendirako abeltzaintza eta oihangintza aktibitateen bilakaera eta egonkortasuna aztertu eta bermatzeko

Eragileen gehiengoak argiki agertzen badu ere laborantxa-abeltzaintza-oihangintzak behar duela etorkizunean bizkar hezur funtziotz bat bete, oraindik behar da ikusi baldintza guziak beteak direnez hortara joateko. Horregatik, ongi daiteke :

- ↳ **Oinarri prospektibo bat ukaitea laborantxa-abeltzaintzaren pratiken bilakaerez, hemendik 2005era :** nor ibiliko da mendian heldu diren urteetan ? Zoin eremuetan ? Zer bilakatuko dira larrez aldatzen diren artaldeak ? Nolako bilakaera izanen du mendiko gasna transformazioak ? mendiko harrera funtziek sartze berriak sortuko dizkie artzainei ? Zoin baldintzatan ? galdera guzi hauek merezi dukete azterketa prospektibo bat eragile ezberdinei azterketa elementu zehatzak emateko. Duela guti, « ardi esne » sareko eragileek muntaturiko Interes Zientifikoko Biltzarren bere laguntza ekarri behar luke arlo horretan,
- ↳ **INRAk emanako aholkuetan oinarritu Euskal Herriko etxaldeen bideragarritasuna segurtatzeko :** Leader II programaren baitan, INRAk 1998an eramandako lanek, laborantxako eragileek eramandako konzertazio sakoneko fasearen ondotik, laborantxa-abeltzaintza Euskal herrian iraunazteko proposamen konkretuak egiteko aukera eman dute. Horren arabera, programa honen talde eragileak arlo horretan egindako aitzinamenduen bilan bat egin dezan eta partaidezko animazio bat segurta dezan pista ezberdina hauek beriz aztertuak izan daitezen,
- ↳ **Tokiko usaiak kodifikatu :** etxaldeen bideragarritasuna, laguntzen banatzeko momentuan, gero ta gehiago kondutan hartuak diren tokiko pratiken onarpenetik iragaiten da baita ere,
- ↳ **Oihana eta bere betekizuna sartu lurraldeko garapen desmartxetan :** gaur egun, Euskal herrian, eta batez ere euskal mendian, oihanaren tokia eta funtziei buruzko benetako hausnarketa bat falta da. Lurraldeko oihan hitzarmena, inplikatzen duen partaidezko desmartxa azkar eta anitzarekin, tresna interesgarri eta berria bat gerta daiteke oihana, abeltzaintza, ur baliabide eta mota biologiko guzien zainketa, aisialdiko aktibitateak... elgarrekin bizi daitezen.

## **2- Aisialdiko aktibitateak zaindu laborantxa-oihangintza-abeltzaintzako aktibitateen errespetuan**

Aisialdi aktibitateen garapena mendi gunean, tokian traba iturri bat bezala hartu da gehiago, garapen ekonomikorako aukera berri bat baino. Garapen honek iraun dezan, garapen Kontseiluak ondoko pistak proposatzen ditu.

- ↳ **Mendiaren alde onak balorizatu aktibitate ekonomikoak garatu eta ugaritzeko :** Aisialdiko aktibitateek tokiko ekonomiaren duten inpaktoa, aberastasun, enplegu sorreraren mailan, adierazgarria izan daiteke baldin eta eragile ezberdinek elgar aditzen badute arlo honetako estrategia kontzertatu baten zehazteko. Lurralde horietan abian jartzen ari diren garapen proiektu kolektiboak (GPK) hortara joateko aukeratzekoak izan daitezke.
- ↳ **Aisialdiko aktibitateei zuzenduriko eremuak zehaztu mendiko espazioen neurria :** aisialdirako aktibitateak harmonizatu behar dira euskal mendian dauden usaiako aktibitate guziekin eta usaiako aktibitateen praktikei egokitu eta ez aldrantziz. Gune batzuetarako sartzea formalki murriztu gabe, 4\*4 edo moto-kross motako aktibitateei, diagnosi geografiko bat egin behar daiteke aktibitate mota honen kokaguneaz. Lan hau, haran bakoitzeko konzertazio baten ondorioa izan daiteke, hunkituak diren eragileen artean, batzorde sindikal eta tokiko erakundeen zuzendaritzapean.
- ↳ **Euskal mendiaren erabiltze kodigo bat burutu :** bideko kodigo bat egina izan den moduan, euskal mendiko erabiltze kodigo batek, sartze eta zirkulaziorako araudi zehatz batekin, zonbait usaia txar murriztuko lituzke. Beharrezko da, gatazka egoerak aurrikusteko, elgarren artean eta batzorde sindikal mailan, joko araudi bat eraikitzea. Gogoeta horrek zehaztu behar luke ere Batzorde sindikalei eman beharreko polizia poderea kudeatzen dituzten lurraldeetan araudi berri horiek aplikatzeko, gaitasun eta diru baliabide hauek ez direlako gaur egun haien esku.
- ↳ **Tokian jarri mendiaren erabiltzaile guziendako informazio eta sentsibilizaziorako tresnak :** praktikatzen duten ingurumenari buruzko ulermenerako behar diren jakintzak eta erreferentziak ez dituzten jendeek « kontsumitzen » dute euskal menda. Horregatik, beharrezko da ekintza pedagogikoak azkartzea eskoletako publikoei buruz eta Euskal Herriko turismo bulegoak bultzatzea mendiko praktika onen alde komunikatu eta laguntzeko (sinaletika, erabiltze araudiak...)

## **3- Aran bakoitzean konzertazio gune bat sortu mendiko eragile eta erabiltzaileen artean**

Erabiltze gatazken biderketak kalapita hauen tratamenduaren galdera pausatzen du, edota konflikto egoeren antizipazioarena. Experientzia hauek ikustean, eragileen arteko erabiltze gatazken ondorioz sorturiko arazoaren aterabidea, gutitan aurkitzen da kanporaketa edo debekuetan, baina gehienetan eragileen artean adosturiko konponbidean. Horregatik, aholkatzen da tokiko konzertazio biltzarrak antolatzea, erabiltze guzien elgarretaratzeko eta arazoez aritzeko aukera izan dezaten. Horretarako, garapen Kontseiluak ondokoa proposatzen du :

- ↳ **Konzertazio funtzio hau batzorde sindikalaren baitan sartzea :** batzorde sindikalak, oihan, abeltzaintza eta laborantxari buruzko galderai dagozkien arazo guzietarako mediazio guneak bezala ongi identifikatuak dira. Erreferentzako instituzioa izanki, beharrezko daiteke segurta dezaten osagarri gisa, kontzertazio funtzio hori mendiko erabiltzaile guzien artean, eta horrela, pixkanaka erabiltzaileek elgar ez ezagutzeak sortzen dituen zailtasunak desagerraraztea
- ↳ **Tokiko foroak antolatu mendiaren erronkez :** kontzertazio gune horiek sortu baino lehen, eztabaidak antolatu beharko daitezke mendiaren etorkizunaz, tokiko foro

batzuen bidez, bertako eragile guziek gogoetan parte har dezaten eta pausaturiko erronkak barnera ditzaten.

## 2. Ardatza : mendiaren zainketa sekurizatua eta eremuen kudeantza ona

### 4- Tresnak eta baliabideak desberdindu abeltzaintzako guneak sekurizatzeko eta bermatzeko

Abeltzaintzarako eremuak ongi zaintzeko tresna onena alhagia bada, bere mugak lurralteko ertainetan aurkitzen ditu artaldeak ez baitira bertatik gehiago edo guti baizik pasatzen. Suaren teknika zaharrena eta gehienik erabiltzen da. Halere arriskugarria da ez bada ongi menderatzen. Horregatik komeni da :

- ↳ **Zainketa teknikak ugaritzea :** larre erreketa teknika osagarriak behar dira hobeki ikusi : gyrobroyage, mekaniza ezin baina hurbil errexak diren eremu batzuen mozketa, hurbil ezinak diren eremu batzuen zuhaitz landatzea, hurbil ezinak diren gune hauei egokitzten zaizkien abere arrazak berriz sartu. Xiberoko herri elkargoak bere GPKan sartu du larre erreketa ez diren beste zainketa teknikak entseatzeko operazioa
- ↳ **Larre erreketaren kudeantza prozedurak azkartu :** legediak ongi zaintzen ditu prozedura hauek. Behar daitzke indartu tokiko ekintza batzuen bidez teknika horiek hobeki menderatzeko eta ibiltarien edo mendiaren erabiltzaile bakoitzaren segurtasuna bermatzeko,
- ↳ **Gune ertainen kudeantza kolektiboko egiturak antolatzen lagundu :** gune ertainen kudeantzak arazo garrantzitsu bat pausatzen du gehienetan ez baitira zainduak. INRAren 1998ko lanak laguntzen du gune horien zailtasun eta desberdintasunak estaltzen duenaren zabaltasuna ikustea eta zehaztea. Honi erantzuteko modu bat daiteke lur jabeak bultzatzea, izan daitezen pribatu edo publikoak, bil daitezen eremu horiek kolektiboki kudeatzeko. Horretarako badira, eragileen esku geldi daitezkeen egitura mota ezberdinak : les Associations Foncières Pastorales, les Associations Syndicales Autorisées, les Opérations Groupées d'Aménagement Foncier...

### 5- Gune natural sentsibleak babestu

Ingurumenaren babes eta honetaz ari den legeak arrunt aldatzen ari da. Ingurumen erronkei emandako garrantziak gero ta gehiago kokatuko ditu lurraldeen garapen eta antolakuntza politikoen muinean. Arlo horretan, beharrezkoa dirudi hiru neurri azpimarratzea :

- ↳ **Mendate sentsibleen (Iparla, Artzamendi...) kudeaketa on baten aldeko modalitateak aztertu :** mendate hauek INRAren azterketan « zainketa gutiko mazelak » bezala identifikatuak izan dira, laborantxako aktibitaterik gabe. Beraien antolakuntza, kudeantza, ondare natural eta pastoralaren mantenimenduaren etorkizuna ez da bermatua. Itsas bazterretik hurbil den eremu hau hurbil errexka eta jende anitz bada eremu honen « babesteko » dituen alde zoragarriak begiratzeko ondare naturalaren babes eta aktibitateen kohabitazio on batetan oinarritua den garapen iraunkor bat jartzeko. Beharrezkoa da denen adostasunarekin, hunkituak diren eragileek (udalerri, batzorde sindikal, abeltzain, elkarte...) elgarrekin geldi dezaten eremu sentsible horien kudeantza onaren eskema eta honen martxan jartzeko baldintzak zehaztzen,

- ↳ ***Ur baliabideen babesea sartu mendiaren erabiltze praktiketan***: ur baliabideen babesea erronka orokor bat da eta mendiko erreka eta iturrien babesatik doa ur erabilien tratamendura. Gehien bat abereen gorozkiei loturiko kutsadura fenomenoak hauteman dira mendiko iturriean. Baliabide honen babesak ekartzen du beste molde batez ikusi behar direla laborantxa-abeltzaintzaren praktikak kaptatze eremuen inguruan
- ↳ ***Jadanik dauden ingurumen neurriean oinarritu garapen iraunkorreko praktikak lekuaren jartzeko*** : natura 2000 guneen behin betiko sailkapenean, komeni da diseinatzeko helburuen dokumentuetan oinarritza, neurriak eta ahalak tokiko eragileen asmoei egokitzeko

### 3. ardatza : Etorkizuneko proiektua euskal mendirako

#### 6- Diseinatu euskal mendi osorako garapen iraunkorrerako hitzarmen.

Euskal mendian eramaten diren aktibitateak garatzen dira neholako proiektu orokorrik gabe eta lurralte honen etorkizuna nolakoa izan behar luken edo izan daitekeenari buruzko ikuspegi orokorrik gabe. Beharrezkoa dirudi mendirako egiazko garapen hitzarmen bat zehaztea. Horretarako, garapen Kontseluak hiru proposamen egiten ditu :

- ↳ ***Adierazi, proiektu orokor baten inguruan, helburu amankomunak eta ekintza programa bat*** : aipatu ditugun tematika guzien zeharkako proiektu hau, hitzarmen baten itxura har dezake, honek euskal mendian dauden aktibitateen iraupena eta kontzilizazioa eta urte batzuetarako Estadoa, erregioa eta Departamenduarekin izenpeturiko ekintza programa bat bermatuko lituzkeena. Menda hau ez baita Iparraldean bakarrik, nafartar aran eta eragileen parte hartzea desmartxa honetan onuragarria daiteke. Gogoeta aberastuko luke eta mendiaren aspektu batzuk horrela molde orokorean aurrikusiko daitezke. Mugaz gaindiko lan honek lagundulo luke europar diru laguntzak lortzeko 2006 ondotik.
- ↳ ***Hitzarmen honen burutzeko batzorde eragile bat tokian jarri*** : garapen iraunkorreko proiektua hunkituak diren eragile guziek parteka dezaten, komeni da Batzorde eragile honek bere baitan sarraraz ditzan, Batzorde sindikal eta lurralte hauen udalerri kudeatzaileez gain, abeltzain, artzain, oihantzain, ihiztari, arrantzale, aisiaidiko aktibitateen ordezkarriak eta mendiak eta bere etorkizunak hunkitzen dituen tokiko erakundeak.
- ↳ ***Batzorde sindikal eta udalerriean oinarritu hitzarmen hau eta bere operazio programa eramatea segurtatzeko*** : Xiberotik Baigorriera doan euskal mendiaren parte handienarentzat, Batzorde sindikalak dira lurralte hauen kudeantza eta antolakuntza organo nagusiak. Beraien ekiteko gaitasunari esker, ezinbesteko interlokuoreak dira horrelako proiektu bat eramateko beste jabe edo jabeen elkartea, erabiltzaile eta tokiko erakundeen partaidetzarekin.